



1.ZKI.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KUOTAK ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

=====

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Ondasun Higiezin Zergaren, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14.3 artikulua ematen duen baimenaz baliatuz, ondorengo artikuluan adierazten diren terminuetan ezartzen du, zerga horren karga mota.

II.-KARGA MOTAK

2. Artikulua.

1.- Hiri izaerako ondasunei aplikagarri zaien, Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga mota, ERANSKINEAN adierazten den ehunekoa izango da.

2.- Landa izaerako ondasunei aplikagarri zaien, Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga mota, ERANSKINEAN adierazten den ehunekoa izango da.

III.- OINARRI ZERGAGARRIA ETA KUOTAK

3. Artikulua.

1.- Hiri Izaerako Ondasunei aplikatzen zaien Ondasun Higiezin gaineke Zergaren oinarri zergagarria bere balio katastralaz osatuta egongo da.

2.- Landa Izaerako Ondasunei aplikatzen zaien Ondasun Higiezin Zergaren oinarri zergagarria, arauz onartutako balio katastralaz osatuta egongo da.

3.- Zerga horren kuota osoa zehazteko, aurreko ataletan adierazten diren Oinarri Zergagarri bakoitzari dagozkion karga motak, Ordenantza honen 2. artikuluan zehazten direnak, aplikatzen zaizkie.

4.- Kuota likidoa, Ordenantza honetan aurreikusitako hobarien zenbatekoan kuota osoa gutxituz lortuko da.

IV.- EXENTZIOAK

4. Artikulua.

Uztailaren 5eko 12/1989 Arau Foralaren 4. artikuluan jasotakoak aplikatuko dira, Tokiko Zerga-Ordainketaren sistema erreformatzen duen martxoaren 19ko, 4/2003 Arau Foralak emandako idazketarekin, eta zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Arau Foralak artikulua beraren f) letrako 2. zatian egindako aldaketarekin eta azkenean, zerga arloko zenbait neurri onartzen dituen abenduaren 1eko 8/2006 Arau Foralak artikulua beraren a) letrako 1. zatian egindako aldaketarekin.

Halaber salbuetsiak egongo dira, herri titularitatekoak diren osasun zentron titularitatepeko ondasunak, baldin eta, esandako zentru horien helburu zehatzak betetzera behartuta badaude.

V.- HOBARIAK

5. Artikulua.



2010KOFO0002

Ondorengo hobariak aplikatuko dira:

- A) %90 eko hobaria, Famili ugariaren titular izaera duten subjektu pasiboen alde, familia osatzen duten kide guztien artean 35.385,00 € baino gutxiago kobratzen badute, eta beti ere tituluaren eskubidea ematen duen seme-alabetako zaharrenak 18 urte betetzen dituen arte edo hura ikasle den bitartean, agirien bidez ziurtatuko dena.
- B) %50 eko hobaria, eraikuntza berriko babes ofizialeko etxebizitzetzi, eta haiei, proiektu eta erregistro mailan atxikitako garaje eta trastelekuetzi, behin betiko izendapena lortu eta 5 urtez.
- D) Eguzki energiaen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten eginda edo kontsultatuta dauden ondasun higiezinarako, zergaren kuota osoaren %50. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek, Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki beharko dituzte eta haien instalazioa ziurtatzen denetik hsi eta, 5 lehengo urteetan aplikatuko da.
- E) Eusko Jaurlaritzaren, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartuko Bizigune programaren barruan erabilera-lagapena duten, ondasun higiezinari dagokionez, zergaren kuota osoaren %50 Hobari hori aplikatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da Udaletxean.
- A) eta B) hobariak ezingo dira batera aplikatu.

VI.- GESTIO ARAUAK

6. Artikulua.

1.- Zerga hori gestionatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ahalmenak, Gipuzkoako Foru Diputazioaren esku delegatu ahal izango dira, Udaltzatzen zehaztuko dituen termino, eduki eta zenbaterainokoa, horretarako dagokion hitzarmena sinatuz.

2.- Hartutako udal erabakia, behin onartu ondoren, G.A.O.n argitaratuko da.

VII.- AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza fiskala eta bere eranskina 1989ko irailaren 29an izandako Osoko bilkuran onartua izan zen eta 1990eko urtarrilaren batean indarrean sartu zen. Ordenantza hau aplikatu egiten da aldaketan historialean jasotzen diren aldaketekin eta indargabetzea erabakitzen den arte indarrean egongo da.

VII- ALDAKETEN HISTORIALA

Osoko bilkuran onartutako eguna	G.A.O.n argitaratutako zenbakia eta eguna	Indarrean sartu den eguna	Aldatutako artikulua
1989 IRA 29	247- 89 ABE.30	90 URT 1	Hasierako onarpena
1990 URR 04	250- 90 ABE 31	91 URT 1	Zerga tipoak
1991 IRA 26	248- 91 ABE 31	92 URT 1	Zerga tipoak
1992			Ez dago aldaketarik
1993			Ez dago aldaketarik



2010KOFO0002

1994 MAR 29	74 - 94 API 22	94 URT 1	Itunpeko ikastetxe pribatuen exenz.eta %50 hobaria babes ofizialeko etxebizitzetzi
1994 URR 10	234- 94 ABE 13	95 URT 1	Zerga tipoak
1995 URR 09	233- 95 ABE 11	96 URT 1	Hiri zerga tipoa
1996 URR 07	237- 96 ABE 10	97 URT 1	Zerga tipoak
1997 URR 06	243- 97 ABE 22	98 URT 1	Zerga tipoak
1998 URR 22	247- 98 ABE 29	99 URT 1	Zerga tipoak
1999 URR 18	247- 99 ABE 28	00 URT 1	Zerga tipoak
2000 URR 16	246- 00 ABE 29	01 URT 1	Zerga tipoak
2001 URR 15	249- 01 ABE 31	02 URT 1	Zerga tipoak
2002 URR 14	247- 02 ABE 31	03 URT 1	Zerga tipoak
2003 URR 09	249- 03 ABE 31	04 URT 1	Zerga tipoak eta Art.3,4,5 eta 6
2004 MAI 10	129- 04 UZT 08	04 URT 1	2 hobari berri
2004 URR 13	247- 04 ABE 27	05 URT 1	Zerga tipoak
2005 URR 10	247- 05 ABE 30	06 URT 1	Zerga tipoak
2006 URR 16	247- 06 ABE 30	07 URT 1	Zerga tipoak
2007 URR 08	243- 07 ABE 14	08 URT 1	Zerga tipoak eta hobariak
2008 URR 13	251- 08 ABE 31	09 URT 1	Zerga tipoak eta hobariak
2009 URR 05	246- 09 ABE 30	10 URT 1	Zerga tipoak eta b) hobaria
2010 URR 07	244- 10 ABE 23	11 URT 1	Zerga tipoak eta a) hobaria

ERANSKINA

Udalbatzarra izandako eguna: 2010eko urriak 7

Industri lurzoruan edo hirugarren sektorekoan, dauden hiri ondasunen, Hiri Izaerako Ondasun Higiezin gainera Zergari aplikagarri zaion karga mota, balorazio ponentzien arabera, ehuneko **0,4687** koa da.

Gainontzeko hiri ondasunen Hiri Izaerako Ondasun Higiezin gainera Zergari aplikagarri zaion karga mota, onartutako balorazio ponentzien arabera, ehuneko **0,1973** koa da.

Landa Izaerako Ondasun Higiezin gainera Zergari aplikagarri zaion karga mota, **1,14** koa da.

ALKATEA,

IDAZKARIA,